

KURTZEBARRI BHI

www.kurtzebarribhi.hezkuntza.net



DBH 4

Aretxabaleta, 18-19 Ikasturtea

AURKIBIDEA

- 1. IRAKASLEAK/ ARLOAK/ ORDUTEGIAK**
- 2. EBALUAZIO DATAK**
- 3. TUTORITZA PLANA**
- 4. ORIENTAZIOA**
- 5. DBH 2. MAILARA PROMOZIONATZEKO BALDINTZAK**
- 6. FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO OHARRAK**

1-. IRAKASLEAK/ ARLOAK/ ORDUTEGIAK

IRAKASLE TALDEA

4.A ko tutorea: Alfredo Cobo (G.H)

4.B ko tutorea: Nora Monreal (lengua castellana)

4.Cko tutorea: Larraitz Goikoetxea (euskara)

Euskara:Larraitz Goikotxea

Fisika-Kimika: Aitor Berasaluce

Geografia eta Historia: Arantza Lekuona

Gaztelania: Nora Monreal eta M^a Jose Moreno

Ingelesa: Bego Lekunberri

Matematika: Pili Beitia, Izaskun Agirre, Maite Loidi eta Aitor Arabiotorre

Aukerakoak: ekonomia (Aimar Urruzuno)

fisi-kimi (Aitor Berasaluce eta Kepa Beraza)

bio-geo (Aitor Berasaluce eta Kepa Beraza)

tekno (Josu Sarasua-Gurutz Martinez)

plastika (Ainhoa Bikuña)

frantsesa (Marian Lizarralde)

ikt (Aitor Irazoki)

Erljioa: Maribel Royuela

Balio Etikoak: Imanol Oiartzabal

Orientatzailea: Jose Luis Martin

Arloak eta ordutegiak

4A					
8:30 9:25	INGELERA	GAZTE	AUKERAKOAK	MATE	INGELERA
9:25 10:20	AUKERAKOAK	AUKERAKOAK	MATE	EUSKARA	ETIKA-ERLIJIO
10:40 11:35	GAZTE	AUKERAKOAK	GAZTE	TUTORETZA	AUKERAKOAK
11:35 12:30	MATE	AUKERAKOAK	GEO-HISTO	INGELERA	AUKERAKOAK
12:50 13:40	EUSKARA	EUSKARA	INGELERA	G.H	GEO-HISTO
13:40 14:30	GEO-HISTO	MATE	AUKERAKOAK	G.H	EUSKARA
15:00 16:30	HAUSPOA	HAUSPOA		HAUSPOA	

4B					
8:30 9:25	GEO-HISTO	INGELERA	AUKERAKOAK	MATE	EUSKARA
9:25 10:20	AUKERAKOAK	AUKERAKOAK	MATE	GAZTE	ETIKA-ERLIJIO
10:40 11:35	INGELERA	AUKERAKOAK	EUSKARA	TUTORETZA	AUKERAKOAK
11:35 12:30	MARTE	AUKERAKOAK	INGELERA	EUSKARA	AUKERAKOAK
12:50 13:40	GAZTE	GAZTE	GEO-HISTO	INGELERA	G.H
13:40 14:30	EUSKARA	MATE	AUKERAKOAK	GEO-HISTO	G.H
15:00 16:30	HAUSPOA	HAUSPOA		HAUSPOA	

4C					
8:30 9:25	EUSKARA	EUSKARA	AUKERAKOAK	MATE	G.H
9:25 10:20	AUKERAKOAK	AUKERAKOAK	MATE	INGELERA	G.H
10:40 11:35	GAZTE	AUKERAKOAK	GEO-HISTO	TUTORETZA	AUKERAKOAK
11:35 12:30	MATE	AUKERAKOAK	EUSKARA	GEO-HISTO	AUKERAKOAK
12:50 13:40	GEO-HISTO	INGELERA	ERLIJIOA	GAZTE	INGELERA
13:40 14:30	INGELERA	MATE	AUKERAKOAK	EUSKARA	GAZTE
15:00 16:30	HAUSPOA	HAUSPOA		HAUSPOA	

2-. EBALUAZIOAK

Urtean zehar hiru ebaluazio izango dira. Hauetako bakoitzaren bukaeran ikasleei noten boletinak emango zaizkie.

Boletinak entregatzeko datak:

1.ebaluazioa: abenduak 3

2.ebaluazioa: martxoak 11

3.ebaluazioa: ekainak 17

Ez-ohiko azterketak: Ekainak 20-21

Azken boletina: Ekainak 25 (09:00)

Erreklamazio egunak: Ekainak 25 -26 (10:00-12:00)

Urtean zehar, gutxienez, banakako 2 elkarrizketa egingo dira ikasleen gurasoekin.

3. TUTORITZA PLANA: eduki-multzoak

1. Garapen Pertsonala: Bizitza proiektua, norbera bere burua ezagutu. Hazkuntza pertsonala; arazoei aurre egiteko ahalmena hobetzea; erabaki hartzearen prozedurak hobetzea eta bizitzan zehar garatzeko proiektu pertsonala egitea.

2. Besteekiko harremanak: Ni eta besteak, elkarrekin bizi. Aniztasuna, hezkidetzak, kulturartekotasuna, Komunikazioa; talde-lana eta gatazken konponketa landu egiten dira. Teknologia berriak eta sare sozialak.

3. Ikasketa-prozesuak: Eskola errendimendua; ikasketa-tekniken aplikazioa eta metakognizio-estrategiak (ikasten ikasi) optimizatzen dituzten gaitasunekin lotutako edukiak lantzen dira.

4. Orientazio akademikoa: Ikasleei bere erabaki akademiko egokiak hartzen laguntzen zaie. Lanbideak aztertu, genero ikuspegitik.

4. ORIENTAZIOA: lan-esparruak

1. Ikas-Irakaskuntza prozesuari laguntza: Aniztasunaren trataera, ikasteko zailtasunen detekzio eta prebentzioa, hezkuntza premia bereziak.

2. Orientazio akademiko-profesionala: Orientazio plana diseinatu eta bere garapenean parte hartzea. Planaren helburua, erabakiak hartzeko eta bere etorkizuneko proiektu pertsonala eraikitzeko gaitasuna garatzea.

3. Tutoretza Plana: Ikasleen eskolatze-aldi osoan orientazio eta jarraipen ekintza guztiak antolatzeko egitura da. Honelako helburuekin: ikasleak bere burua ezagutzea eta onartzea, bere sozializazio-prozesua hobetzea, erabakitzen eta ikaskuntza-arazoak konpontzen ikastea, eta bere proiektu pertsonal eta profesionalaren protagonista sentitzea.

4. HEZKUNTZA SISTEMA AZALDU. DBH eta gero zer??

- Batxilergoa
- Lanbide Heziketa

5. TITULUA LORTZEKO IRIZPIDEAK

<u>IKASTURTEA: DBH 4</u>	<u>TITULUA</u>
a) Dena gaindituta	TITULUA LORTUKO DU
b) Arlo batean edo bitan ebaluazio negatiboa.	Titulua lor dezake, baldin eta ondorengo baldintzak betetzen baldin badira (*)

(*) TITULUA ATERATZEKO BALDINTZAK

Ikasgai guztiak gainditzen dituzten ikasleek DBHko titulua jasoko dute. Salbuespenez, titulu hori lortuko dute ikasgai batean edo bitan ebaluazio negatiboa jaso duten ikasleek baldin eta irakasle taldeak ikasgaien izaerari eta garrantziari erreparatuta, ikasgai horiek ez gainditu arren, ikasle horiek oinarritzko gaitasunak eta etapako helburuak lortuak dituztela uste badu (BOPV 2010/04/20)

6. FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO OHARRAK

6.1.- Ikastetxeko arautegia eta Elkarbizitza Plana

1. **JOKABIDE DESEGOKIAK:** Etxerako lanak ez egitea, materiala ez ekartzea, klasean oztopatzea, berandu ailegatzea justifikatu gabe, irakasleei ez obeditzea, materialari narriadurak eragitea...
 - **Irakasleak zuzenduko du.**
2. **BIZIKIDETZAREN KONTRAKO JOKABIDEAK:** Aginduak ez betetzea irain eta desfizioz lagunduta, mehatxuak, boletinak edota notak falsifikatzea, nahita egindako matxurak, apurketak, beste pertsoneri kalte egitea eraso fisikoa erabili gabe...
 - **Zuzendariak parte hartuko du eta gurasoei deituta, neurri zuzentzaileak aplikatuko ditu.**

3. **BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEAK:**

Ikastetxeko edozein aginte organoen, irakasle edo langile ez irakasleen aginduak ez betetzea adierazpen oso iraingarriekin; eraso fisiko edo psikologikoa eragitea; debekatutako sustantzien kontsumoa bultzatzea; grabazio baliabideak erabiliz besteek irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea; kaltea eragitea instalazioetan...

- **Zuzendariak parte hartuko du eta gurasoei deituta, neurri zuzentzaileak aplikatuko ditu.**

Denon datu pertsonalak babesteko (argazkiak, grabazioak...) **Ikastetxeak patrikako telefonoa, mp3-4 eta antzekoak eskolako ordutegi barruan ekartzea debekatzen du, bertako eskaera konkretua ez bada.** (jolasaldia eta jangelako ordua barne).

6.2.- Istripuak edo gaixotasunak

Istripuak izaten diren kasuetan ikastetxetik etxera deituko dizuegu, zuen seme edo alaba ambulategira eraman beharrik balego. Etxean inor ez balego edo istripuaren larritasunak hala eskatuko balu, geuk eramango genuke.

Ekarri duzuen baimenaren arabera eman ahal izango diegu botika batzuk.

6.3.- Eskola kuota

Ordezkaritza Organo Goreneko Batzorde Ekonomikoak erabakiko du aurtengo kuota. Azaroan guraso guztiei jakinaraziko zaizue.

Kuota honekin arlo batzuetako (teknologia, plastika, aukerakoak...) materiala eta ekintza osagarri guztiak ordainduko dira, kurtso hasierako eta bukaerako irteerak izan ezik.

6.4.- Ekintza guztietarako baimena

Guraso guztioi igorri dizuegu baimen orria sinatu dezazuen. Urteko Planean agertzen diren ekintza guztietarako balioko du, Organo Gorenak onartu ondoren.

6.5.- Partaidetza organoak

- Ordezkaritza Organo Gorena (Batzorde Iraunkorra, Batzorde Ekonomikoa eta Elkarbizitza Batzordea).
- Guraso Elkarte.

6.6.- Ikastetxearekin harremanetan jartzeko

Ikastetxera behar den guztietan jotzea da egokiena. Asko erreztuko luke aurrez abisatzeak eta hitzordua jartzeak.

Hemen dituzue helbideak:

Telefonoa: 943-795740

E-maila: 012945aa@hezkuntza.net

Webgunea: **www.kurtzebarribhi.hezkuntza.net**

Idazkaritzako ordutegia: 8:00/13:15 eta 14:30/17:15.

6.7.- Zirkularrak

SINATUTA BUELTATU BEHAR DIREN DOKUMENTU ETA BAIMENAK BAINO EZ DIRA PAPEREAN BANATUKO.

FAMILIEKIN IZAN BEHARREKO KOMUNIKAZIOA, EMAILEZ GAUZATUKO DA

6.8.- Jantokia eta garraioa

Zerbitzu hauen iraupen denbora eskola ordutegia da ondorio guztietarako.

Jantokiko prezioa : Egunero geldituta: 4,60 €

Garraiatuak : 3,60 €

Ez -ohikoak: 5,20 €

6.9.- Ikasleen hutsegiteen justifikazioa

Gurasoek betetako agiria ekarri behar dute sinatuta guk banatutako agirietan.

Medikuarengana joaten direnean Osasun zentrokoa ekartzea komeni da.

6.10.- Droga kontsumoari aurre egiteko protokoloa

Institutua, Guraso Elkarte eta Udaletxearen artean adostutako protokoloa da.

Institutuak duen ardura gurasoei seme-alaben kontsumoan ohartaraztea izango da. Web orrian zehazten den bezala.